



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ALDARRIKAPEN INSTITUZIONALA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Legorretako Udalaren adierazpena:

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, orain arte lortutakoa ospatzeko eguna ez ezik, oraindik egiteko asko dagoela onartu eta aldarrikapenak egiteko eguna ere bada. Azken bi urteotan, pandemiak agerian utzi ditu Mugimendu Feministak aspalditik salatzen zituen zenbait egoera: bizitza zaurgarria eta menpekoa da.

Zaintza beharrak herritar guztiek dituzte, baina, gaur egun, sistemak emakumeei esleitzen dizkie zaintza lan horiek, eta, ondorioz, zaintza eredu emakumeen esplotazioan oinarrituta dago. Eredu hori jasanezina da.

Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan instituzio honek ere dagokion ardura hartzea. Bizitzak erdigunean jarri behar dira, gure komunitatearentzat egitura jasangarriak eraiki, elkarrekin.

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, eta duen erantzukizun publikoa kontuan izanda, udalari dagokio eraldaketa hori hastea, horretarako baldintzak bermatzea eta neurriak hartzea.

Horregatik, Legorretako Udalak honako hau erabaki du:

1. Berdintasun politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.
2. Berdintasunaren aldeko lanean generoaren eta giza eskubideen ikuspegia indartzea, bai eta udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
3. Administrazio langileen berdintasunari buruzko barne prestakuntza bultzatzea.
4. Emakumeen eta nesken ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea eta parte hartzeko bideak irekitzea.
5. Gure herriko emakumeen ehun soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze premisetatik.
6. Tokiko zaintza sare komunitarioak bultzatu eta babesak eta baliabideak ematea.
7. Zaintza lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio kanpainak egitea eta zaintza eredu inguruko eztabaida guneak irekitzea, erantzukidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.